

**ERREFORMA LABORALAK
EZ DU PREKARIETATEA MURRIZTEN**

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU

1.- HEH-KO KONTRATUAK 2010AN

2010ean enplegu motak eta bere kalitatea ez dira aldatu; aitzitik, iaz Hego Euskal Herrian erregistratu ziren lan-kontratuen %93 aldi baterakoak izan ziren, hots, 2009an baino 0,7 puntu gehiago.


MUGAGABEKO ETA ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUAK (%). HEH, 2009-2010

	2009	2010
Aldi baterakoak	92,3	93,0
Mugagabeak	7,7	7,0

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Azken bost urteetako aldi baterako kontratuen bilakaerari erreparatuz gero, 2,8 puntuko igoera ikusten da, %90,2tik %93ra. Gainera, aldi baterako kontratuen hazkunde hau (mugagabeen kaltetan gertatu dena), areagotu egin da azken bi urteotan, hain zuzen 1,4 puntu 2009an eta 0,7, 2010ean.

ALDI BATERAKO KONTRATUEN BILAKAERA (%). HEH 2006-2010



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Aldi baterako kontratuei dagokienez, 2010ean gehien produkzioaren gorabeherengatiko mota erabili da (aldi baterako kontratuen %40,8 izan delarik); lan edo zerbitzu jakinekoak %33,3 izan dira, eta bitartekoak, %23,8.

Sexuaren arabera, 2010ean aldi baterako kontratuen %55,2 emakumeek sinatu zuten.

ALDI BATERAKO KONTRATUAK


MOTA ETA SEXUAREN ARABERA (%). HEH, 2010

	Emakumeak	Gizonak
Lan edo zerbitzu jakinekoa	38,6	61,4
Produkzioaren gorabeherengatik	48,0	52,0
Bitartekoak	75,0	25,0
Besterik	39,1	60,9
Guztira	55,2	44,8

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Datuok sexuka aztertuta, ondorioa argia da: emakumeen kontratuak gizonezkoenak baino prekarioagoak dira. Aldi baterako kontratuen %55,2 emakumeek sinatu zituzten, eta %44,8 gizonek. Kontratu mugagabeei dagokienez, emakumeek %46,4 sinatu dituzte, eta gizonek, %53,6.

ALDI BATERAKO ETA MUGAGABEKO KONTRATUAK SEXUKA. HEH, 2010



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

2.- KONKLUSIOAK

1.- Aldi baterako kontratuak gehitzen ari dira; honek nabarmen uzten du gauzatu den erreforma laboralak ez duela balio aldi baterako enplegua gutxitzeko, erabaki politikoa aurrera eramateko argudio politiko gisa ustezko eragin hau erabili bazuten ere. Datuek adierazten dute hain justu kontrakoa gertatzen ari dela, baina inork ez du atzera egiteko asmorik, erreforma babestu zuten alderdietan, ezta abstentzioarekin bidea ireki ziotenetan ere.

2.- Krisi aldi honetaz baliatzen ari dira lan-baldintzak okertu eta prekarietatea hedatzeko:

- Aldi baterakoak gehitzen ari dira, mugagabeen aldean.
- Sinatzen diren kontratu mugagabeak ere prekarioagoak dira, erreforma laboralaren ondorioz.
- Emakumeek prekarietate handiagoa jasaten dute, kontratuen datuek adierazten duten legez.

3.- Erreforma laboralarekin gertatu zen bezalaxe, Espainiako gobernuak beste eraso latz bat egingo die langile-klasearen eskubide sozialei, pentsioen erreforma. Eta murrizteko beharra argudio faltsuekin zuritu nahi dute; hau gertatu zen erreforma laboralarekin ere.